



INDUSTRIARAKO CORONAVIRUSEN AURKAKO JARDUERA- PROTOKOLOA (COVID - 19)

Protokolo irekia da, eta informazio, gomendio edo jarraibide berriak gehituko zaizkio, COVID-19ren bilakaeraren arabera.

(Azken eguneratzea 2020/03/18)



AURKIBIDEA

- 1. SARRERA**
- 2. HELBURUA**
- 3. ERANTZUKIZUNAK**
- 4. INDUSTRIARAKO JARDUERA-PROTOKOLOAK**
- 5. ERREGISTROA**
- 6. ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZIOA**



1. SARRERA

COVID19 gaixotasunaren koronabirusa birus berria da, aurretik ezezaguna. Pertsonatik pertsonara arnasaren bidez transmititzen da 5 mikra baino gehiagoko arnas tanten bidez, gaixoak arnas sintomatologia (eztula eta doministikuak) duenean eta infektatutako pertsonen jariakinekin kontaktu zuzena duenean eskuen bidez. Inkubazio-aldia 2 eta 14 egun artekoa izan daiteke. Horregatik, babes neurririk onenak kutsatutako eta birusa daramaten pertsonen isolamendua eta higiene pertsonala dira.

2. HELBURUA

Langileen osasuna ahalik eta gehien babesteak bateragarria izan behar du ekoizpen-jarduerari eustearrekin, nahiz eta maila murrizetan izan; izan ere, pandemia gainditu ondoren, hazkunde ekonomikora itzultzea eta enplegua sortzea ahalik eta modu azkarren eta eraginkorrenean egin ahal izatea da azken helburua. Horretarako, ezinbestekoa da jarduera-protokolo industrial argi eta erraz bat ezartzea, zorrotz bete dadin.

Jarduera-protokolo honen helburuak honako hauek dira: 1) **pertsonen osasuna bermatzeko neurriak** ezartzea, 2) birusaren **hedapenaren kontrola**, 3) agintariak gomendatzen edo ezartzen dituzten gizarte-neurriekin **batera joatea** eta 4) **industria-jardueraren jarraitutasuna bermatzea**, bai eta ahalik eta lasterren normaltasunera itzultzeko eta eragin ekonomiko larria saihesteko behar den erresilientzia ere.



3. ERANTZUKIZUNAK

Ez dago eragile zehatz arduratsurik, ERANTZUKIDETASUNEZ jokatu behar dugu industria-sektore bakoitzeko eta, oro har, jarduera ekonomikoko balio-kateko eragile guztiek: erakundeek, hedabideek, enpresek eta herritarrek, helburu komun batekin, kutsatzeko arriskuak minimizatzea. Kide bakoitzak katearen zati batean du erantzukizuna, COVID-19 birusaren hedapena saihesteko azken helburuarekin.

Gainera, **industria-ekoizpeneko hainbat sektoretako eragile guztiek erantzukizun berezia dute Euskadin jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzea bermatzeko.** Horregatik, enpresei eskatzen zaie Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak berak ezartzen dituen neurriak egokitu eta ezar ditzatela, dokumentu honetan jasotako babes-gomendioak eta osasun-agintaritzek etorkizunean ezar ditzaketenak, eta edozein enpresatako langileei ahalik eta gehien zorrotz ditzatela lanbide-arloko edo arlo pribatuko gomendioak.

Enpresetako arduradunei eskatzen zaie identifikatu ditzatela jarduera mantentzeko funtsezkoak diren pertsonak eta azpiegitura kritikoak, baldin eta gaixotasunaren ondoriozko baje, nahitaezko berrogeialdien ondoriozko absentismoaren gehikuntzaren eta ohiko funtzionamendurako funtsezko hornitzaileei laguntzeko behar beste ordezkoko hornidura eta zerbitzu aurreikusita badituzte.

Langile guztiek hirugarrenekin dituzten harremanak ezinbestekoak direnetara mugatu behar dituzte, autokonfinamendu bat garatu behar dute lantokitik kanpo. Etxetik lanerako joan-etorria banaka egingo da, eta lantokira sartu aurretik edozein kutsatze-sintomatik libre dagoela ziurtatu beharko da.



4. INDUSTRIARAKO JARDUERA-PROTOKOLOAK

SARBIDE KONTROLA

- **Sintomatologiarik ez dagoela egiaztatzea** (eztulik ez, arnas arazorik ez, sukarririk ez) eta lehen mailako aurretiazko kontaktuak. Instalazioan sartu aurreko tenperaturaren kontrola, eta 37°C-tik beherakoa izan behar du. Sintomarik izanez gero, lanera ez etortzea, erakundeari jakinaraztea eta etxean bi astez edo erabat sendatu arte isolatzea.
- **Sartu berrietan**
 - Langileen jatorria egiaztatzea, eta jatorria zalantzazkoa bada gaixotasunak eragindako pertsonaren batekin lehen mailako harremana izan duelako, lanean hastea atzeratzea.
 - Koronabirusaren aurrean sentsibilitate bereziko pertsonak egiaztatzea eta haien osasuna bermatzeko prebentzio- eta kontrol-neurriak ezartzea.
- **Kanpoko langileen sarrera-kontrola.** Kanpoko langileei sarbideari buruzko kontrol berberak aplikatuko zaizkie, eta jarduerari eusteko behar-beharrezkoa den kontrol zorrotzera mugatuko dira. Kanpoko langileak enpresaren barruan mugitzea beharrezkoa den eremuetara mugatuko da. Kanpoko langileei protokolo honetan aurreikusitako higiene- eta babes-neurri berberak aplikatuko zaizkie.

HIGIENE PERTSONALA

- Eztul edo doministiku egitean, **ondo estali ahoa eta sudurra ukondoarekin** edo erabili eta botatzeko zapi batekin, arnas jariakinak atxikitzeko.
- **Erabili eta botatzeko zapiak erabili**, eta bota berehala horretarako prestatutako ontzi batera.



- **Eskuak sarritan urez eta xaboiz garbitzea** (edo gomendatutako soluzio batekin), birusak kutsatzea edo ukitzea saihesteko, eta, betiere, ez tul, doministiku eta mukiak kendu ondoren. Eskuak itxuraz garbi badaude, oinarri alkoholikoko produktuekin garbituko dira.
 - → **DESINFEKZIOA**. Fluidoekin edo bestela ere zikinduta badaude, ura eta xaboi antiseptikoa erabiliko dira.
 - → **GARBIKETA**. Alkohol-oinarriko produkturik ez badago, eskuak garbitu beti.
- Azazkalak moztuta eta zainduta eraman behar dira, eraztunak, eskumuturrekoak, eskumuturreko erlojuak edo eskuen higiene egokia oztopa dezaketen beste apaingarri batzuk erabiltzea saihestuz.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa, **eskuen bidez errazago transmititzen** baita.
- **Saihestu edonolako kontaktu fisikorik.**
- **Ahalik eta distantziarik handienera egon** ($\geq 1,5$ m), jarduerak horretarako aukera ematen badu, metro 1 gutxienez.
- **Higiene-neurriak zorrotz betetzea** elikagaiak manipulatzeko prozesuetan, bai eta maskarak erabiltzea ere



Koronabirusa prebenitzeko GOMENDIOAK

- 1 SARRI GARBITU ESKUAK URAREKIN ETA XABOIAREKIN**
- 2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN AH OA ESTALI BESAUAREAREKIN EDO MUKIZAPI BATEKIN**
- 3 ERABILI ETA BOTATZEKO MUKIZAPIAK ERABILI, ETA, ONDOREN, ZAKARRONTZIRA BOTA**
- 4 ARNAS-SINTOMAREN BAT IZANEZ GERO ETA ARRISKU-EREMU BATERA BIDAIATU BADUZU, ETXEAN GERATU ETA DEITU 900 20 30 50**

Mukiak kendu edo doministiku edo eztaul egin ondoren

Komunera joan ondoren

Animaliekin kontaktua izan ondoren

Elikagaiak jan edo manipulatu aurretik

Gaixo dagoen norbait artatu aurretik eta ondoren

Esku zikinak dituzan guztietan

Osakidetza

Euskadi, auzolana

EUROKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Koronabirus: ESKUAK BEHAR BEZALA GARBITZEKO JARRAIBIDEAK

Coronavirus: INSTRUCCIONES PARA LAVARSE LAS MANOS ADECUADAMENTE

Mójese las manos y déposite en las palmas jabón líquido...

Eskuak busti eta esku-barreketan xaboi likidoa jarri ...

Frótese las palmas de las manos entre sí y entrelazando los dedos

Esku-barrenak bata bestearekin igurtzi, atzamarrak gurutzatuz.

Frótese cada palma contra el dorso de la otra mano, entrelazando los dedos.

Esku-barren bakoitza beste esku-gainarekin igurtzi, atzamarrak gurutzatuz.

Frótese las puntas de los dedos...

Atzamar-muturrak igurtzi...

Alrededor de los pulgares...

Hatz lodien inguruak ere bai...

Y las muñecas...

Baita eskumuturrak ere...

Enjuáguese las manos con agua y séquelas con una toalla de un solo uso

Xaboa urarekin kendu eta eskuak erabiera bakarreko eskuoihalarekin lehortu.



INSTALAZIOAK GARBITZEKO ETA DESINFEKTATZEKO PROZEDURA

- Lantokiaren eta ekipoen garbiketa eta desinfekzioa antolatzeko kontrolak eta neurriak indartu behar dira. Gune komunetan (harrera, bilera-gelak ...) maiztasuna handitzea gomendatzen da, bai eta erakusmahaiena, ateetako heldulekuena, altzariena, zoruena, telefonoena eta abar ere. Horretarako, etxean erabiltzeko lixiba erabil daiteke.
- Garbiketa-lanetarako, binilozko/akrilonitrilozko eskularruak erabiltzea. Latexeko eskularruak erabiliz gero, kotoizko eskularru baten gainean egitea gomendatzen da.
- Garbiketa-produktuen eta babes-ekipoen stocka hobetzea, stockak hautsiz gero horiek gabe gera ez daitezen: gelarena edo eskuetarako disoluzio desinfektatzailearena, zapi eta erabili eta botatzeko eskularruak, amantalak eta zabor-poltsak.
- Soluzio hidroalkoholiko desinfektatzaileak eskuratzea eta lantokietan banatzea gomendatzen da, jendeari arreta emateko postuetan kokatzeko, bezeroek, kanpo-zerbitzuek eta langileek oro har erabil ditzate

Kutsatuta egon daitezkeen azalerak garbitzeko prozedura: birus horiek 5 minutuz desinfektatzaile arruntekin kontaktuan egon ondoren inaktibatzen dira:

- Erabili beti diluzio prestatu berria
- Lixiba komertzialetatik abiatuta gomendatutako kontzentrazioak lortzeko: ara
 - ✓ 50 g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml-ko lixiba litro batean.
 - ✓ 40 g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml-ko lixiba litro batean.
- *Adibide bezala, "Zopa koilara" bat 15MLren baliokidea da.
- Lixiba erabili ezin den gainazaletan etanola erabiliko da %70ean



Laneko arropak mekanikoki garbitu behar dira garbiketa-ziklo osoetan, 60-90 °C-tan. Ehunezko jantzi "zikinak" manipulatzeko, eskularruak erabiliko dira. Ez da arropa astindu behar garbitzeko.

- Garbiketako langileek norbera babesteko ekipamendu egokia erabiliko dute (eskularruak, amantalak, etab.), egoera bakoitzean kontuan hartzen den arrisku-mailaren arabera, eta modu seguruan botako ditu erabili ondoren, eta gero eskuak garbituko ditu. Kontsultatu zure Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari.

OSASUNA ETA SENTSIBILITATE BEREZIA

- Sintoma motaren bat (arnasketa edo sukarra) duten pertsonak badaude, etxean geratu (etxeko isolamendua), erakundeari, Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuari eta Osakidetzako Lehen Mailako Arretako medikuari jakinarazi aldi baterako ezintasuna behar badute, eta etxean bi astez edo erabat sendatu arte isolatu.
- Zalantzarik izanez gero, **hartu tenperatura eta 37°C-tik gorakoa bada, geratu etxean**, ez etorri lanera eta jarraitu beti osasun-laguntzaren jarraibideak. Erakundeari informazioa ematea, aurreko puntuan zehaztutakoaren arabera.

ANTOLAKETA-NEURRIAK:

Zuzendaritzari eta/edo gerentziari dagokio enpresan gertatzen den edozein gorabehera kudeatzea, eta, bestek beste, honako gomendio hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Kasu hipotetiko isolatuan, enplegatutako pertsona bat COVID-19ko kasu baieztatua edo susmagarria (ikertua) izateko egoeran badago, lanera joateari utzi behar dio emaitza negatiboak baieztatu arte edo osasun-agintariek infekzioa konpondutzat eman arte, kasuaren arabera.



- Baliabideen erabilgarritasuna: osasun-agintariek gomendatutako prebentzio-neurri guztiak garatzeko behar adina baliabide ekonomiko eta estrategiko izan behar dira.
- Krisi-batzordearen koordinazioa: establezimenduan kasuak daudela deklaratu gero, batzorde bat antolatzea gomendatzen da, inplikaturako sailtako arduradunekin, kanpoko aholkulariekin (juridikoak eta sanitarioak) eta osasun-agintaritzekin.
- Ekintzen erregistroak: gomendatzen da hartzen diren ekintzak erregistratzeko liburu edo agenda bat egitea, data, ordua, arduradunak eta abar zehaztuta, eta sor daitekeen dokumentazio guztia gordetzea: garbiketa-partek, mantentze-lanen kanpo-kontrolak, zerbitzu-albaranak, laneko bajak, etab.
- **Erabili eta botatzeko zapiak eta alkoholdun soluzioak/eskuoihalak eskura jartzea**, bai eta oinarritzko informazio-puntu bat ere.
- **Maskarak eskura jartzea**, beharrezkoa bada, garatutako jardueraren arabera.
- Instalazio komunak, joan-etorrietakoak eta erabilera pertsonalekoak **garbitzeko maiztasuna handitzea**.
- **Banaketa eta antolaketa espazialaren analisia, bai eta lan-prozesuena ere**, segurtasun-distantzia bermatzeko, hala nola esparru eta pabiloi itxietan, prestaketa- eta hautaketa-geletan eta abarretan lan egitea, hori ezinezkoa bada gomendatutako maskarak erabiltzea.
- **Espazio konfinatuetan (siloetan, biltegietan, etab.) sartzeta, sahiestea** eta ezin bada prebentzio-neurririk ezarri, hala nola segurtasun-distantzia eta maskarak, hala badagokio.
- Zapi erabilentzako **berariazko edukiontzi itxiak** jartzea.
- **Hondakinak kentzeko maiztasuna handitzea**.
- **Airearen berrikuntza areagotzea** lan-eremu guztietan, ahal den guztietan, modu naturalean edo behartuan, eta iragazkien garbiketa areagotzea.



- Garbiketako agenteak ordezteak, hala badagokio, eraginkortasun handiagoko beste agente batzuekin.
- Instalazio komunetan > 5 pertsona egotea saihesteko banaketa eta antolamendua, segurtasun-distantzia bermatuz, adibidez, jantokietan, atsedenlekuetan, bilera-geletan, zerbitzuetan eta abarretan, betiere pertsonen arteko gutxieneko distantzia 1,5 metrokoa izanik. Instalazioek ez badituzte neurri horiek bermatzen, erabilera-txandak programatuko dira.
- **Ordezkapen-poltsaren aurreikuspena**, langileak behar izanez gero.
- Erakundeko pertsona guztiak ahalik eta **lankidetzaren handiena** izatea prebentzio-neurriak hartzeko eta egindako gomendioen jarraipena egiteko.

KORONAVIRUS KASU BATEN SUSMOA:

- Kutsatutako pertsonen baieztapena badago, lanera ez etortzea, datuak biltzeko eta ikerketa epidemiologikorako erakundeari jakinaraztea, eta etxean bi astez edo erabat sendatu arte isolatzea.
- Prebentzio Zerbitzuko osasun-langileek hurbilen dauden kontaktuak bilatuko dituzte (1. maila), bai eta horien jarraipena ere, kasu positiboa agertu eta hurrengo bi asteetan.
- Laneko jatorria duten kutsatzeak eta horiei dagozkien berrogeialdiak, laneko istripuztat hartzen direlako, Lan Agintaritzari jakinarazi behar zaizkio

5. ERREGISTROA

Langileak bere irakurketaren eta adostasunaren adierazpena: protokolo hau irakurri eta ulertu dela eta erantzukizun-zatia bere gain hartzen duela eta ezartzeko konpromisoa hartzen duela egiaztatzen duen agiria, sinaduraren bidez.

6. ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZIOA

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

Cast: <http://www.euskadi.eus/informacion-y-recomendaciones-generales-de-actuacion-en-euskadi-ante-el-nuevo-coronavirus/web01-a2gaixo/es/>

Eus: <http://www.euskadi.eus/koronabirus-berriaren-aurrean-euskadin-jarduteko-informazioa-eta-gomendio-orokorrak/web01-a2gaixo/eu/>